



3 UDALBATZARRA

Gai ugari nahastu zen ohiko Udalbatzarrean

Udalbatzarra luzea izan zen asteartekoa, hiru ordu luzetan asko izan ziren jorratutako gaiak. Gai zerrendan aurre ikusitakoei hainbat gehitu zitzaizkion eta galdera eta eskaeren tarte zabaltzean, langabetuen plataformak luze jardun zuen euren eskaerekin. Besteak beste, udalaren irudi korporatibo berria hautatzeko lehiaketa egitea adostu zen.

4 KIROLA

Michelingo zelaian Errugbi partida izango da bihar

Michelingo kirol guneko zelai berriuan errugbian ere jokatu daiteke. Hori dela eta, bihar 12:00etan Euskal Ligako kadete mailako Beltzak Ostadar Gure Etxea-Gernika partida ikusi ahaliko da Lasarte-Orian.

5 OSASUNA

Osasun jardunaldiak datorren astean Manuel Lekuonan

Osasunari eskaintako XX. astea burutuko da astelehenean ostegunera bitartean Manuel Lekuonan. Egun hauetan hitzaldiak izango dira arlo ezberdinetako profesionalen eskainita. Hizlarien artean izango da Rosa Gainza herriko osasun zentroko erizain burua. Berarekin ambulategiko zuzendaria den Enrique Contreras medikua arituko da. Bien artean ahoz aho dabilzan bi gai landuko dituzte, batetik arrisku kardiobaskularrak eta bestetik, gripearen aurkako txertoa.

287 proposamen eta 287 erantzun

Auzoz auzoko prozesuaren 4. pausoa aurkeztu du Parte-hartze sailak

Auzoz auzoko bileren laugarren pausoa aurrera eramango du Lasarte-Oriako Udalak. Hurrengo ostegunetik aurrera, berriro ere, auzoetan bilerak izango dira. Herritarrek proposatutako ideiei Udala teknikariek emandako erantzuna azalduko dituzte. Eta kasu batzuetan konponbidea erabakitzeak aukera ere izango da.

Azter eguerdian, Lasarte-Oriako Udaleko Parte-hartze sailak auzoz auzoko prozesuaren hirugarren eta laugarren pausoa aurkeztu zituen Okendo plazan egin zen prentsaurrekoan. Alaitz Mendizabal Parte-hartze saileko burua eta Larraitz Sarobe teknikaria izan ziren bertan.

Alaitz Mendizabalek azaldu zuen, "4. pausuari ekingo diogu hurrengo astean. Bilera hauetan, arestian jasotako proposamen bakoitzari erantzun bat emango zaio, hau da, Udalaren barruan departamentu bakoitzak landu duen erantzuna jasoko dute herritarrek".

Prozesua pausoz pauso
Agerraldian honelako esperientzia bat Lasarte-Orian gauzatzen den lehen aldia dela gogoratu zuten, baita eman diren pausok ere.

Auzoz auzoko bileretan lehenik herritarren proposamenak, ideiak, kezkak... jaso ziren. Bigarren bileretan



Larraitz Sarobe Parte-hartze saileko teknikaria eta Alaitz Mendizabal Parte-hartze saileko burua azter eguerdiko aurkezpenean.

lehetasunak ezarri ziren eta hauek teknikoaren esku jartzeko konpromezua hartu zuen Udalak.

3. pausoa honek uste zena baina denbora gehiago eman diela onartu zuten prentsaurrekoan, "lanketa hau ez da batera erreza izan, departamentu bakoitzak bere eritmoa baitu eta egunerokotasunean mila gai lantzen baitira".

Hala ere, "gauza guztiak nahi bezala eta nahi bezain azkar atera ez arren lan egiteko era berriak fruitu asko ematen ditu" adierazi zuen.

Azkenik, 4. pausarekin auzoz auzoko parte-hartzeari amaiera bat eman nahi dio Udalak, "auzotarrei erantzunak emanaz".

Bilerak auzoetan
Honela, parte-hartze sailaren asmoa aurrera begira herritarrekin bide honetatik jarraitzea izango da, "gertutasunez lanean eta era honetan, bilera hauetan ere gure eskura dauden azalpen guztiak emango ditugu".

Izan ere, herritarrekin egindako bileretan jasotako 287 proposamenei erantzuna emango baitaie hurrengo asteetan, hau da, 287 proposamen 287 erantzun.

Honetaz gain, bilera hauetan auzo bakoitzari dagokion kontu txikiren bat ere erabakitzeak aukera izango dela aurreratu zuten prentsaurrekoan.

Bilerak honako leku eta egunetan izango dira:

- 1.- Zabaleta, Goiegi. Azaroaren 22an, 19:00etan, Zabaletako auzo elkartean.
- 2.- Oztaran. Azaroaren 23an, 19:00etan, Lanbide eskolan.
- 3.- Basaundi, Oria. Azaroaren 26an,

- 19:00etan, auzo elkarteetan.
- 4.- Zumaburu, Goikale. Azaroaren 27an, 19:00etan, Euskaltegian.
- 5.- Atsotak. Azaroaren 28an, 19:00etan, Garaikoetxean.
- 6.- Sasota. Azaroaren 29an, 19:00etan, Sasota ikastetxean.
- 7.- Erdigunea. Azaroaren 30ean, 19:00etan, Manuel Lekuonan.

Lasarte-Oriako Udalaren izenean Parte-hartze saileko arduradunek gonbidapena luzatu nahi diete herritar guztiei bilera hauetara gertura daitezen.

"Urte hasieran hasi ginen bide hau lantzen, auzoetan ideiak jasoz eta honela hurrengo urteko aurrekontuetan bere islada izango dute, zirkulua itxiz. Azken finean, aurtengo Udala aurrekontuak parte hartzaileak eginez," adierazi zuen Larraitz Sarobe, parte-hartze teknikariak.

ALBA

ARROPA DENDA

Zure betiko arropa denda!

KOOKAI
NAFNAF
VERSE

Nagusia 65 beheza • Lasarte-Oria • Tel.: 943 574450

Bideo Lagunak



SARTU ETA BEGIRATU GURE ESKAINTZAK!

10 hilabete interesik gabe

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Neure kabuz



Gorka Lasa

Azala azalaren kontra

Azken argi izpiez goxatzera bi amona iritsi dira haur parkeko bankura. Beroietako bat, jertsearen mangapetik paperezko zapi zimurtu bat atera, eta bere lekua izan dena garbitzen hasi da. Zapia bezain zimurtua duen esku zurbila, lehenengo hara eta gero hona darabil. Ondoren, eskuin besoa ipurtazpian sartu eta gona lisatua kontu handiz bildu du, esertzekoan zimur ez dadin.

Bestea ondoan jarri zaio, edo jarri dute, gurpildun aulkian ekarri baitute. Honek, aurpegia argal, ahoa erdi irekia eta begizulo sakonetan ditu galduak begiak. Haurrei begira geratu da, baina ez dago haur jolasik bere buruan. Buru desordenatuan haurtzaroko oroitzenak gordeta dituen kutxatxo ezin aurkitu dabil, edo besterik gabe, ez zuen haurtzarorik izan, lana gogor egitea tokatu baitzitzaion.

Lehenengoak hitza ematen dio, baina gaixoak ez dio deus. Honen atzean dagoenak erantzuten dio ordea, 40 urte gazteago den ahotsak. Ahots ezta du, goxoa eta apala, eta hitz egiten duen eran laztantzen du bere eskuaz amona. Maitekiro, emeki gora eta behera sorbalidan. Eskutik heldu dio hotzak dituen ikusteko, eta igurtzi batzuk emanez epeldu dizkio, azala azalaren kontra.

Amonak ez dio ezer, ez du keinu zipitzik ere egiten. Berak ez daki esku horiek ere ez dutela haurtzarorik izan, eta ez daki han nonbait familia bat utzi dutenik, eta ez daki noizbait bere etxera itzuliko direnik. Baina dakiena da, urrutiko esku beltzaran horiek maitekiro, emeki eta goxo laztantzen dutena.

Zorion agurrak



Marian

Zorionak txapeldun!!!! 1000...muxe Ttakun eta Solaskideko lagunentz partetik. Oso ondo pasa.



Aitor

Azaroaren 6agatik, hamabi muxe handi familia osoaren partetik. Zorionak!



Leire

Zorionak printzesa! Zortzi muxe goxo amatxo, aitaixo eta Iraiaren partetik.



Urko

Zorionak Urko!! Odei, aita eta amaren partetik 5 muxe haundiak... Maite zaitugu!!



Enara

Zorionak bihotza!! Oso ondo pasa, zure 7. urtebetetzearan. June, ama eta aitaren partetik



Dolores eta Isabel

Zorionak zuen 80. Urteurrenean Diez-Usabiaga eta Arroyo-Usabiaga familien partetik. Mila esker zuengandik jaso dugun guztiagatik, eredugarriak zarete.



Manex

Zorionak txipiron! Mila muxe zure laugarren urtebetetzearan familia osoaren partetik!



Ibai eta Urko

Zorionak bikote!!! Ondo pasa zuen urtebetetzearan, eta muxe pila familia guztiaren partetik!!!



Udane

Zorionak printzesa! Lau muxe potolo aita, ama eta Suharren partetik.



Katixa

Zorionak printzesa! Gure lau urterik zorionsuenak izan dira. Aitaixo eta amatxo.



Amaiur

Zorionak gure printzesa eta 4 muxe pottolo, Ekain, aitaixo eta amatxoren partetik!

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Pisukide bila nabil. Etxe polita eta zentroan kokatuta, gela handia da eta argitsua. Aukeran 35 urterik gorako pisukidea nahi nuke. Hilabetean 300 euro inguru. Pilar 647 884 278
- Garaje bat dago salgai Lasarten, goikale kalean, 14 m2, pintatu berria eta armairu bat dauka. 5,40 x 2,60 neurtzen du. 25000 eurotan saltzen da eta ikusi daiteke konpromisurik gabe. 670822805. Nerea.
- Etxea alokatzen da Zapategi kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela ditu. Guztira 85 metro karratu. 636 585 478.
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskatzen da. Telefonoa: 649526766
- Logela alokatzen da erdialdean, Brigidatarren parean. Bakarrik bizi den 32 urteko gaztea naiz

eta etxea elkarbanatu nahiko nuke. Gela ohe handi batez eta armairuz hornitua dago. Hilean 300 euro gastuak barne. Deitu 682322457

Lan-eskariak

- Neska haur eta nagusien zaintzan edota garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. Janet 666 708 963
- Emakume eskaintzen da haurrak edo pertsona adinukatu zaindu edo etxeko lanak egiteko orduka edo interna moduan lan egiteko. 608 131 170.
- Pertsonak adinukatu eta haurrak zaintzeko eskeintzen da emakume bat. Baita etxeko lanak egiteko ere. 677188189/ 632433769
- Emakume lanerako prest. Garbiketa lanetarako edota nagusien zaintzarako. Asteburuetan lan egiteko prest. Azucena 669 931 026

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Leire Maya Garcia, azaroaren 11an.
- Paula Martinez Campos, azaroaren 9an.
- Juren Antuan Matalo Guerrero, azaroaren 8an.
- Alaia Momo Gonzalo, azaroaren 6an.
- Oier Goikoetxea Gaztelumendi, azaroaren 3an.



Heriotzak

- Juan Antonio Martin Alcala, azaroaren 12an, 89 urte zituela.
- Eleuterio Casas Llana, azaroaren 11an, 78 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

| | | |
|----------------|------------------------------|------------|
| Ostirala, 16 | Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 | 943 363549 |
| Larunbata, 17 | De Miguel, Kale Nagusia 32 | 943 371151 |
| Igandea, 18 | De Miguel, Kale Nagusia 32 | 943 371151 |
| Astelehena, 19 | Urbistondo, San Frantzisko 1 | 943 366567 |
| Asteartea, 20 | Orue, Jaizkibel plaza 2 | 943 362652 |
| Asteazkena, 21 | De Miguel, Kale Nagusia 32 | 943 371151 |
| Osteguna, 22 | Rodriguez, Nagusia 42 atzea | 943 361774 |

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
 Chula, Kardaberaz 48
 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
 Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
 KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

UDALBATZARRA

Udalbatzar luze eta nahasia

Udalak lehiaketa egingo du irudi korporatibo berria aukeratzeko, saria 3.000 euro

Udalbatzarrak luzea izan zen, hiru ordu. Gai zerrendan aurre ikusitako gaiak hainbat gehitu zitzaizkion eta galdera eta eskaeren tartea zabaltzean, langabetuen plataformak luze jardun zuen euren eskarerekin.

Maidier AZURMENDI

Oihiko udalbatzarrak ospatu zen asteartean. Gai zerrendan aurre ikusitakoaz gain, etxe kaleratzeen inguruko urgentziako mozioa ere denbora luze izan zen azalduta. PPKo ordezkaria zein Marisa Zubiri ez ziren plenoan egon.

Gai zerrendarekin ekin zioten ohiko batzarrari. Lehenik udal pertsonalaren lan baldintzen marko arautzaile berriaren onspena bozkatu zuten. Kontrako bozka eman zuten PSE-EEek baina udal gobernuaren aldeko bozkek inonartuta gelditu zen udal langileekin lortutako akordioa.


Ana Prietok azaldu zuen, udaleko langileekin aspaldi lantzen ari zela lan baldintzen aldaketa eta "prozesua luzea izan arren, bi aldeentzat onurak bilatu dira eta lau urterako akordioa lortu. Oso pozgarria da guretzat".

Ondoren, korporazio-kide liberatuen gehiegizko kopurua finkatu zen udalbatzar akordioa izan zuten hizpide, hau aldatzea eskatu zuelako udal gobernuak. Aldaketa EAJko zinegotzien liberazioan datza. Orain arte Boris Noga-lesek jarduera osoko liberazioa zeukan eta Estitxu Alkorta ez zegoen liberatuta, orain liberazioa elkarbanatuko dute. Gai zerrendako alderdiek begi onez ikusi zuten. Alkateak azpimarratu zuen udalari alderdiek ez diola diru gastu estrarik eragingo.

Udalaren irudi berria

Udalaren logotipoa eta irudi korporatiboa lantzeko lehiaketaren oinarriak onartu nahi izan zituen udal gobernuak. Alkateak azaldu moduan, beharrezkoa ikusten da udalaren irudia berritzea eta hau dela eta, San Pedro jaietako kartelarekin egin bezala lehiaketa martxan jartzea proposatu zuen. Irabazleak 3.000 euroko saria jasoko luke.

PSE-EEek aurka bozkatu eta Jesus Zaballosek argitu nahi izan zuen euren bozkeraren arrazoia, "lehiaketa ez zaigu



Langabetuek euren protestak eraman zituzten udalbatzarrera.

gaizki iruditzen baina orain ez da momentua, badira udalaren presazkoak diren gai garrantzitsuagoak". Hala ere, lehiaketa egingo da udal gobernuaren osatzen duten alderdien arteko bozkek. Aurrerago lehiaketaren oinarriak zabalduko ditu udalak.

Honetaz gain, 2012 ekitaldiak kredituak aldatzeko bideratu diren txostenen berri eman zuen Alkortak. Adarra kaleko babes ofizialeko etxeei dagokienez Jaurlaritzarekin sinatutako kitapena, BEZaren igoeragatik gastu berriak sortu eta Gaztelekurako pertsona baten aldi baterako kontratazioa burutu behar izan dela eman zuen jakitera. Jarraian udal ondasun eta eskubideen 2011ko inbentarioan egindako alderdiek onartu zituzten alderdiek aho-batez.

Zergak lanarekin kitatu

Zazpigarren puntuan, PSE-EEren mozioa eztabaidatu zuten. Honetan proposatu zen enplegurik gabe dauden herritarrek udal zorrak gizarte lanarekin "ordaintzeko" aukera aztertzea.

Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako batzorde burua kritikoki azaldu zen proposamenarekin izan ere, "lan postu prekarioak sortzeko arriskuan eror daiteke udala" gainera, "udalarentzat gastua eragingo lukete halako lan postuek izan ere, pertsona hauengatik seguru bat ordaindu beharko litzateke baita gizarte segurantzaren ere. Agian ez da neurri egokiena". Horrela Lizarragak esan zuen zorrak hauek ez sortzeko, udal tasen moldagarritasunera jo beharko dela, hau da, "lanik gabe dauden familien egoera aztertuta tasak murriztea".

Plataformak bere aldetik proposamena bera beste

aukera batzuen artean aztertzea ondo ikusten zuela azaldu zuen "sortzen den zor honi nolabaiteko irtenbidea eman behar zaio eta ona da aukera guztiak aztertzea".

EAJko Estitxu Alkortaek gaia mahai gainean askotan egon dela adierazi zuen baina gauzatzea benetan zaila dela udalarentzat. Hala ere, neurri guztiak aztertzearen aldeko azaldu zen ere.

Bozkatzeko garaian PSE-EE eta Plataformak aldeko bozka eman zuten, Bilduk kontra eta EAJ abstentitu zen. Proposamena onartuta geratu zen beraz, zergak gizarte lanekin ordaintzearen aukera aztertuko da.

Etxe kaleratzeak

PSE-EEek eta Bilduk mozioak aurkeztu zituzten etxe kaleratzeak salatzea. Besteak beste familia askoren egoera zailarekin elkartzatuz azaldu zuten eta hainbat konpromiso hartzeko akordioa iritsi ziren alderdiek etxe kaleratzeak herrian gauzatzeak udal bere esku dauden neurriak hartzeko. Adibidez, udal kontuak etxe kaleratzeak burutzen dituzten entitateetatik kentzekoa.

Galdera asko

Galdera eta eskaeren tartea zabaltzean asko izan ziren jorrotutako gaiak.

PSE-EEek hartu zuen hitza eta hiru galdera bota zituzten udal gobernuari. Batetik ea Antxikusko bizilagunek zergatik eman behar izan zuten bozka obretarako pabeloietan eta ez bizilagunen elkarrekin egotzian. Bigarren, Aldundiari itzuli beharreko dirua zertan den eta azkenik, Adarra kaleko etxeen inguruan informazio faltsua eman zutela egotzita hau gerruz dela leporatu zion Bilduri.

Lehen erantzuna Ana Prietok eman zion Zaballosi izan ere, bizilagunekin askotan hitz egin ondoren, adostasunera ez zela iritsi azaldu zuen egoitzaren berri eta lan batzuk eskatzen zaizkiolako udalari besteak beste. Hurrengo hautakundetarako inguruko etxe berrietako lokal bat hautesleku izango dela aurreratuz.

Aldundiari itzuli beharreko dirua Alkorta eta Barriok azaldu moduan, aurre ikusita zegoen aurrekontuetan eta ondorioz 500.000 euro inguru laster bueltatuko zaizkio "oraindik Aldundiarekin hitz egiten ari gara baina ordaintzeko bakarrean dirua itzultzeko eskatu zaigu udalei".

Azkenik Adarrak etxe babestuen jabeekin udalak bilera informatibo bat egin duela azaldu zuen alkateak eta datuen hika-mikan sartu ziren Barrio eta Zaballos. "Udalak bere esku dagoen guztia egiten ari da lanak aurreratzeko".

FCCren zerbitzu eskasa

Ana Prieto Zerbitzuetako buruak PSE-EEko Martin Morenori kritika gogorra egin zion FCC enpresarekin udalak sinatuta duen kontratuan egondako irregulartasunak azalduz.

Udaleko brigadako langileek FCC kontratuaren arabera honek egin beharreko lan asko egin dituztela salatu zuen eta PSE-EEko Moreno jo zuen errudun "zure esku zegoen zerbitzua kontrolatzea eta kontratua bete araztea, udalak txakur kakak garbitzeko motorra eta guzti erosi zuten, ez da gure herriko kaleetan inoiz egon. FCCri eskatu diogu eta han zuten, noski gurera ekarriko dugu erabiltzeko".

Langabetuak lokal eske

Langabetuen plataformak euren jarduna burutzeko egoitza bat eta baliabideak eskatu zituzten udalari, ordenagailuak etab. Langabeziaren arazoa herrian larria dela argudiatuz, neurri zehatzak hartzeko asmoa duten galdetu zieten udal ordezkari. Luze jo zuen inpresio alderdiek Gorka Lizarraga, alkatea eta langabetuen artean.

Hiru orduko gehiagorako eman zuten ere Aralarreko Maddik etxe kaleratzeak salatu zituen eta Izagirrek berriz herriaren izen ofiziala Lasarte behar duela argudiatu zuen.

Luze gertatu zen bezar azaroko ohiko udalbatzara.

LIBURUTEGIA

Ipuinak sortzen Kontu Kantoirekin

Astelehenean ipuinaren orduaren saioa izan zen haur liburutegian.

Kontu Kantoiko Cesar eta Beak umeen eskuetan utzi zituzten ipuinen protagonista nondik norakoak. Liburutegira hurbildu ziren 6 eta 8 urte arteko gazte txak oso parte hartzaile izan ziren ipuinak osatzen.

GREBA OROKORRA

la eraginik ez zuen izan grebak

Asteazkenean greba orokorra egiteko besteak beste CCOO, UGT eta CNT egindako deialdiak ia ez zuten eraginik izan herrian. Michelin eta enpresa handietan ia langile guztiak zeuden euren lanpostuetan, eta normaltasunez lana egin zuten komertzio ia denetan, eskoletan eta udal bulegoetan. Langabetuen asteroko manifestazioan izan zen normaltasuna hautsi zuen gertaera bakarra, Ertzaizak manifestaziorako baimena eskatu eta ordu laurdenez Hipodromo etorbidea moztu zuen. Bestela ez zen manifestaziorik egin eta ez zen erdigunean lanuztearen aldeko langilerik ibili.

Langabetuen plataformak Okendon hasi eta Kultur Etxeraino manifestazioa egin zuen. "Lasarte-Oriako langabetuen plataforma, lan eta aberastasun banaketa duin batengatik" pankartarekin beste bat ateratu zuten "14A greba? Langabetuak urteko 365 egunak". Hipodromo etorbidean, Ertzaizak gelditu eta manifestazioa egiteko baimena eskatu zien. Langabetuek baimena erakutsi eta ertzainek papera itzuli bitartean ez mugitzea eta kalearen bi norabideak mozteko erabaki zuten.

GAZTE ZUKGUA

Gazteentzako eztabaida gunea

Gazte Zukgua prozesuaren bigarren blokea hasi dute. Larunbatean, herriko hainbat gazte Villa Mirentxun bildu zen Euskal Herriko egoerari buruz aritzeko.

Lehen zatian gaur egungo egoeraren azterketa landu zuten. Eta honi amaiera emateko, bankuz banku joan eta salaketa sinbolikoak egin zituzten. Izan ere, "eztabaidetako ondorio izan zen gizarte patriarkal kapitalistak eragiten digula gehien eta ondorioz, bankuak direla gure etsai nagusiak".

Errugbiaren jaialdi handia kirol gunean

► Bihar 12:00etan, Ostadar Beltzak eta Gernikaren arteko Euskal Ligako partida izango da Michelin Kirol Gunean ► Lehenengo aldia izango da zelai berrituan errugbian jokatu dena

Lasarte-Orian errugbi zaletu ugari dago eta gure herrian estreinekoz errugbi partida bat ikusteko aukera izango da bihar eguerdian, Ostadar Beltzak Gure Etxea-Gernika. Lehen aldia da Michelingo Kirol Guneko zelai berrituan errugbian jokatu dena eta Beltzak taldeko beteranoek jaialdia handia eta berezia izatea espero dute.

Nerea EIZAGIRRE

Bihar egun handia izango da urtetan herrian errugbi zelaia egoteko borrokan aritu direnentzat, aipatu du Manu Pelaez Errugbi eskolako taldeen kudeatzaileak. Izan ere, Michelingo zelaia berritu dutenetik bertan errugbian ere jokatu ahalko da eta horregatik, bihar eguerdian Kirol Gunean errugbi partida bat ikusteko aukera izango da, Ostadar Beltzak Gure Etxea-Gernika.

Inigo Encinas Beltzak Ostadar eskolako arduraduna eta Manu Pelaez taldeen kudeatzailearekin izan gara norgehiagokari, zelaia eta Errugbi eskolari buruz gehiagoko jakiteko.

Partida garrantzitsua

“Lehen ere jokatu da Michelinen errugbira, baina orduan futbol zelaia zen bakarrik. Orain errugbi zelaia ere bada,” azaldu digu Pelaezek.

Horregatik bihar eguerdian kadete mailako Euskal Ligako partida izango da gure herrian lehenengo aldia.

“Egun garrantzitsua da guretzat urte asko daramatzagu errugbi zelaia borrokatzen. Egun polita izango da guztientzat eta batez ere, errugbian jokatzeko herritik atera behar izan diren jokalarientzat eta Beltzak taldeko betereantentzat,” adierazi digute.

“Errugbi zelaia inoiz ez izatea eta lortu izana. Guretzat oso garrantzitsua da,” aipatu du. Izan ere, “Hipodromo

moan jokatzeko gure bertan ezin zela esan zuten arte” gogoratu du Inigok eta “Hipodromo etorbidean ere jokatu dugu, errepidean” atxiki du Manuk.

Beraz, haurrak bertan jokatu eta entrenatzen ikustea “oso pozgarria eta hunkigarria” izango dela aipatu dute.

Inaugurazioa

Partida honetan inaugurazio antzekoa egin nahi dute eta horretarako, “Zarautz taldeko beteranoak eta gure aurka jokatu duten taldeetako jendea izango da. Gipuzkoako federazioko eta udal ordezkariak ere gonbidatu ditugu”.

Izan ere, eskerrak eman nahi dizkiete azken legealdietan alkatetzan izan direnei. “Lehen aldia da 25 edo 30 urteetan kasu egiten ditugena. Aurreko alkateak, Zaballosek 25. urteurrenean bultzada txiki bat eman zigan eta futbolaz gain, beste kirol batzuk daudela jakiteko balio izan zuen. Zelaiaren aldaketari buruz hitz egin genuen berarekin eta oraingo alkatetzak aurrera eraman du proiektua,” azaldu digute.

Partida berezi honetan eskolako txikiak pasilloa egin eta lehen partida honen oroigarri Gernikari plaka bat emango zaiola aipatu digute.

Eta noski hirugarren denbora ere izango da, “guztientzat. Benjaminetik maila nagusietara. Hirugarren denbora oso garrantzitsua da, jokoaren zati bat da. Beste taldeko jokalariekin jokaldiei buruz hitz egin...



Orain arte, Errugbi eskolako topaketetan ikusi ahal izan dira partidak. Hemendik aurrera partida federatuak izango dira.

Guztiak batzeko modu bat da eta zelaian gertatzen dena bertan geratzen da,” aipatu du Encinasek.

Zelai egokia

Zelaiari buruz galdetzean, egoera onean dagoela azaldu digute. “Ordizia edo Arrasateko errugbi zelaiko egoeran dago gurea,” azaldu digu.

“Lehen zaila zen zelaian zegoen egoeran errugbia irakastea, bai guk, baita haurrek ere urradura ugari eraman ditugu etxera,” aipatu dute.

Honetaz gain, denboraldi honetan Beltzak Ostadar Gure Etxea kadete taldeak etxeko partidak Michelinen jokatzeko asmoa agertu du.

“Hurrengo urtean agian beste mailatoko partidak ere ekartzen saiatuko gara. Zarautzekin batera jokatzeko duten infantil federatuak edo eskolartekoak. “Ikusiko dugu” aurreratu dute Beltzak Ostadar Errugbi eskolako kideek.

“Orain arte ez dugu arazorik izan bertan jokatzeko. Futbol zelai asko dagoelako. Baina talde gehiago baldin baditugu ikusiko da zer gertatzen den,” aipatu dute.

Michelingo kirol gunea taldez gainezka dagoela eta horri ere irtenbidea eman beharko zaiola azpimarratu dute, “zaila dago. Kirol guneak eskaera handia du, batez ere, futboleko partidak izaten dira. Eta horretara moldata beharko gara,” azpimarratu dute.

Gainera, “etxean jokatzeko hasten bagara, gazteek errugbi ikusiko dute eta eskaera handiagoa izatea espero dugu. Michelingo kirol gunea zaharkitua dago eta talde asko gaude bertan,” atxiki dute.

Errugbi eskola

Egun Beltzak Ostadar errugbi eskolan 80 bat haur daude benjamin, alebin, eskolarteko

infantila eta infantil federatu taldeetan banatuta.

“Pixkanaka jende gehiago animatzen da. Añorga Txiki eta Andoaino gaztetxoak ere etorri dira. Usurbilen ere gure kirola aurkeztu nahi dugu,” aipatu digute.

Eta ikastoletan pausoak ematen hasi direla ere azaldu digute. “Andoainen hitzaldiak eman ditugu. Errugbia zer den eta kirol soila ez dela erakusten dugu. Erakustaldiak ere egin ditugu. Errugbia ohiko kirolen alternatiba izatea nahi dugu,” adierazi dute eta Lasarte-Oriako ikastetxeetan ere horrela jarduteko asmoa jakitera eman dute.

“Haurrek futbolaz gain, beste kirol batzuk daudela ikus dezaten nahi dugu. Kirol desberdinak probatzea nahi dugu eta gure kasuan, inongo kosturik gabe” aipatu dute.

“Hiru urteetan familiek ez dute ezer ordaindu. Dirua lortzeko beste modu batzuk ditugu, kamisetak saltzen ditugu, gabonetan saskia zozketatzen da...” azaldu digute.

Izan ere, “guk izan ez genuen aukera haurrek izatea nahi dugu” adierazi dute.

Honetaz gain, aurtan ere ikasurte bukaeran Lasarte-Orian Errugbi eskolen Topaketa izango dela aurreratu digute. “Denboraldi amaieran izaten da eta Gipuzkoako federazioak topaketa horrekin ematen dio amaiera. Hurrengo urtean agian beste topaketaren bat egiten saiatuko gara, baina, aurretik esan bezala, zelaia erabilgarritasuna ikusi beharko da.”



Beltzak Ostadar Gure Etxea kadeteak orain arte Zarautzen jokatzeko zuten. Bihar Michelinen jokatu dute lehen partida Gernikaren aurka. BELTZAK OSTADAR



Rosa Gainza Erizain burua

“Norberak bere osasunaren arduradun izan behar du”

Gripea eta gaixotasun kardiobaskularren inguruko hitzaldia emango du Enrique Contrerasekin

Osasunari eskainitako XX. astea izango da astelehentik ostegunera bitartean burutuko dena. Egun hauetan hitzaldiak izango dira Manuel Lekuona kultur-etxean arlo ezberdinetako profesionalek eskainita. Hizlarien artean izango da Rosa Gainza herriko osasun zentroko erizain burua. Berarekin anbulategiko zuzendaria den Enrique Contreras medikua arituko da. Bien artean ahoz aho dabilzan bi gai landuko dituzte, batetik arrisku kardiobaskularrak eta bestetik, gripearen aurkako txertoa.

Maider AZURMENDI

Rosa Gainzak 20 urte daramatza lanean herriko osasun-zentroan, erizain burua da bera. Ia urtero parte hartu izan du modu batera edo bestera Osasun Astearen egitarauan. “Herritarrek informazioa eduki behar dute, tresnak eman behar zaizkie euren osasunaren arduradun izan daitezen”.

Aurtengo hitzaldia Enrique Contreras osasun zentroko zuzendariarekin batera emango du eta hautatutako gaia, arrisku kardiobaskularrak eta Gripearen aurkako txertoa.

Zergatik arrisku kardiobaskularrak eta gripea?

Batez ere arrisku kardiobaskularrei emango diegu garrantzia. Honen barruan patologia asko sartzen dira eta herriar askok pairatzen dituzte hauek, arruntenak direla esan daiteke, bihotzarekin zerikusia dutenak baina baita bestelakoak ere.

Orokorrean, entzuleak kokatzeko, sistema nolakoa den azalduko dugu eta gero gaitz hauek izateko arrisku faktoreak zeintzuk diren aipatuko ditugu. Honekin batera gaixotasun mota hauek ekiditeko gure esku dauden tresnak, aholkuak emango ditugu aditzera. Argi dago badaudela faktore batzuk aldatu ezin ditzaizkegunak, hau da, adina edo genetika bezalakoak, baina beste batzuk ordea, gure esku daude aldatzea sedentariismoaren kontra kirola edo aktibitate fisikoa sustatu, tabakoa, alkohola baztertu obesitateari aurre egin... Osasunari begira jarrera proaktiboa izan behar dugu.

Eta gripea?

Bai, oso ohituta gaude ondorengo duguena gripea daukagula esatea eta ez da horrela. Jendeak ez daki ondo gripea zer den eta askotan katarro arruntekin nahasten da.

Garrantzitsua iruditzen zaigu gripea zer den ondo azaltzea eta batez ere orain, urte sasoi honetan gaixotzeko arrisku gehiago daukagun garaian gaudela.

Jakinda gaixotasuna nola zabaltzen den, zer den, jendea tresnak ematen dizkiozu ahal den neurrian gaixo daudenetatik urrundu edota gaixo gaudenean medikura joan gabe deskantsatu eta zaintzea. Jakin ezean, ezingo dugu gaixotasuna saihestu edota behar bezala tratatu.

Zer da gripea?

Gaixotasun birikoa da eta jakin behar da gripea bera parasito bat dela. Hau da, beste zelula bat behar du bizitzeko eta hain zuzen horregatik bere kontra ezer gutxi egin daiteke, berak eragindako ondorioak soilik arindu ditzakegu botikekin.

Zeintzuk dira ondorio horiek?

Arruntenak ondorengo, buruko mina eta sukarra izaten dira. Kasu hauetan paracetamol-a ematen da hauek arintzeko baina gainontzean ezin da ezer egin. Ohean geratu, deskantsatu eta asko hidratatu, A eta C bitaminak hartzea da egokiena.

Ondo zaintzen al gara?

Jende askok ez dio gorputzari deskantsatzen uzten gaixo dagoenean, lanera joaten da adibidez eta ez gurek haur egin behar. Gripea daukagunean deskantsatu behar dugu, gure sistema immunologiakori gaitzari aurre egiten utzi behar diogu, hori egiten ez dugunean gaixo denbora gehiago egongo gara. Atsedena oinarritzeko da. Gripearen iraupena aste bete eta bi aste artekoa izaten da eta nekea izaten da uzten duen ondorioz luzeena.

Gripearen aurkako txertoa eraginkorra al da?

Bai eta prebentzio garrantzitsua da jende askorentzat.



Rosa Gainza osasun zentroko bere bulegoan.

Izan ere, badira neurri bereziki hartu behar dituzten herritarrak.

Gripearen aurka eraginkorrena txertoa da zalantzarik gabe eta pertsona jakin batzuei gomendatzen zaie urtero hau hartzea.

Horrela 65 urtetik gorakoek, diabetesa dutenek, asmatikoak, gibela edota bihotz gaixotasunak dituztenek hartu behar dute hau. Gaitz hauekin suposatzen da arrisksua izan daitekeela gripea bera. Pertsona hauen kasuan gripe bezala hasten dena larriagoak diren gaitzetan bihur daitezke, hala nola, bronkitisa.

Nola zaindu behar gara?

Esan bezala oinarritzeko da norberak bere osasunaren arduradun izatea eta jarrera proaktiboa azaltzea. Gaitzetatik hasi behar gara zaintzen. Oinarritzeko da kirola egitea baino, bizitza aktibo bat edukitzea, elikadura zaintzea eta oihitura osasungarriak hartzea.

Gaztetan horrela oihituta, ondoren osasuntsuagoak izango gara eta hobeto egongo gara gaixotasun eta gaitzei aurre egiteko, bizi kalitateak izango dugu heldutan.

Garrantzitsuak al dira horrelako hitzaldiak?

Bai oinarritzekoak. Lehen esan bezala guk behar dugu izan gure osasunaren arduradun eta horretarako informazioa

behar dugu, tresnak. Hauek jasotzeko medikuarekin hitz egitea oinarritzeko da gaitzak aurreikusi behar ditugu eta ez gaixotzeko neurriak hartu.

Osasuna sustatu behar da, gaixo gaudenean sendatzea garrantzitsua da baina garrantzitsuagoa da, ondo gaudenean hala jarraitzea ezta?

20 urte daramatzazu hemen, Orain gehiago zaintzen al dira lasarteoriarrak?

Baietz esango nuke. Kontzientzia sortu da. Lehen egu-

nero ibiltzera ateratzea ziren edadetuak askoz gutxiago ziren, orain koadrila handiak ikusten dira. Hala ere, haurren kasuan batez ere, nahiz eta kirola egin sedentariismoa handiagoa da, telebista eta bideojoko asko sofatik mugitu gabe egiten dute eta hori ez da ona.

Horrekin batera prekoizatuak asko kontsumitzen dira etxe askotan eta hauek ez dira osasungarriak. Hala ere, osasuntsu bizitzeko jendea hezi behar da.

XX.Osasun Astea

Astelehena 19: “Nola aurre egin buruko arazoei”.

Hizkariak Veronica Pazos eta Iker Arrizabalaga izango dira. AGIFES-eko Gizarte laguntzailea eta Koordinatzailea dira eta Gipuzkoako famili eta erlaxazio psikikoen elkarterako langileak. Hitzaldiaren helburuak pertsona batek buru gaixotasunak dituenaren zer egin, tratamenduak, baliabideak azalduko dituzte.

Asteartea 20: “Erlaxazio tailerra” Naiara Urkizu yoga eta pilates irakaslearekin. Lehenengo hitzaldia eskainiko du eta gero erlaxazio praktika egiteko aukera izango da.

Asteazkena 21: “Garaiko elikadura” Egoitz Garrorrek. Elikadura eta osasuna guztiz lotuta daude eta garaiko produktuetan oinarritutako elikadura da osasungarria.

Osteguna 22: “Arrisku kardiobaskularra eta Gripearen aurkako txertoa” Enrique Contreras medikua eta Rosa Gainza erizainarekin. Lasarte-Oriako Anbulategiko Zuzendaria eta Erizain nagusia dira.

Hitzaldi guztiak 19:00etan izango dira Manuel Lekunan.

PILOTA.-



Gurpildun aulki bereziak lortzeko jaialdia Usurbilen

Usurbilgo Pagazpe elkarte-ko kideak duela zazpi urte hasi ziren lanean, gomazko paletako joko arauak gurpil aulkian jokatzeko egokitu eta partidak jokatzeko hasi ziren. Bi pilotari eta entrenatzaile bat hasi ziren proiektuarekin eta egun hamar pilotari eta hiru entrenatzaile dituen taldea osatzen dute, Patxi Fadrique herri-tarra horien artean.

Iaz Gipuzkoako gomazko paletako lehenengo txapelketan parte hartu zuten eta Lasarte-Orian ikusi ahal izan ziren taldearen entrenamendu eta partida batzuk.

Elkarteko kideek jakitera eman dutenez, kirol honetan jarduteko egokiak diren gurpil aulki hauetako bakoitzak 3.500 euro inguru balio du eta Pagazpe elkarteak ezin die honelako gastuei aurre egin.

Jaialdi berezia

Horregatik, dirua biltzeko jaial-

di berezia antolatu du elkarteak larunbata honetan Usurbilen.

Honetan, lau partida ikusi ahalko dira. Gurpil aulkian jokaturako gomazko paletako bi partida izango dira lehenik, Iñaki-Aingeru bikotea Hilario-Patxi-ren aurka eta Edurne-Edorta eta Patxi-Beñat-en arteko norgehiagoka.

Jarraian partida berezia ikusiko da. Honetan Mikel Goñik eskuz eta zutik bikote baten aurka lehiatuko da, Beñat-Edorta. Hauek aulki gurpinduean eta gomazko paletarekin jokatu dute.

Laugarren partida, berriz, eskuz binakakoa izango da. Santxo-Fernando Goñi eta Mikel Goñi-Urruzola bikoteak izango dira aurrez aurre.

Sarrerek bost euro balio dute eta pilotariak jakin arazi dute, bertara joan, apustua egin eta asmatzen dutenen artean, sari bikainak zozketatuko dituztela.

IGERIKETA.-

Buruntzaldea IKT-ko lagunak lehiaketa garaian murgilduko dira

Euskal Ligako lehen jardunaldian izango dira Santurtzin

Bi hilabeteko prestakete ostean, lehiaketetan parte hartzeko garaia iritsi da Buruntzaldea IKT-ko gazteentzat. Itsaso Tolosa, Haitz Mitxelena eta Mikel Esnal bihar Euskal Ligako lehen jardunaldian izango dira lehiaketa.

Nerea EIZAGIRRE

Neguko denboraldia asteburu honetan hasiko da Buruntzaldea IKT-ko igerilarientzat. Bihar Itsaso Tolosak, Haitz Mitxelena eta Mikel Esnalek lehiaketa izango dute, Euskal Ligako jardunaldia Santurtzin.

Borja Apeztegia entrenatzaileak aipatu digunez, "saio garrantzitsua da, hilabete bukaeran Espainiako txapelketa dago eta. Jardunaldi honek markak egin eta Estatuko lehiaketa prestatzeko balioko die Haitz eta Itsasori". Eta Mikelen kasuan, garapena ikusteko balioko du.

Neguko denboraldia

Buruntzaldea IKT-ko entrena-



Gogor ari dira lanean Buruntzaldea IKT-ko igerilariak aurten markak hobetzeko.

tzaileak aipatu digunez, denboraldi honetan igerileku motzeko eta luzeko lehiaketak izango dituzte taldeko gazteek.

Era honetara, Gipuzkoako ligako jardunaldiez gain, Euskal Herriko zirkuituko sari nagusietan ere parte hartuko dutela azpimarratu digu.

Taldea eta helburuak

Taldeari dagokionez, gazteek duten jarrerarekin oso gustora dagoela jakitera eman digu.

Bestalde, taldean bi multzo daudela azaldu du batetik hainbat urte lanean daramatzatenak eta bestetik, aurten infantilen lehen urtean hasi diren gaztekoak.

Kadete, jubenil, gazte eta absolutu mailako igerilariak maila hobereana emateko entrenatzen direla aipatu digu Borjak. "Denek Euskal Herriko txapelketarako gutxienez lortzea espero dugu eta Espainiako txapelketara doazenak sailkapenean postuak hobetzea".

Horretarako, entrenamendu plangintza aldatu dutela aipatu digu Apeztegiak, "bi zatitan banatu dugu denboraldia, lehenengo orain bukatuko da eta bigarrenaren entrenamenduetako karga handituko dugu".

Infantil mailako igerilariekin, berriz, beste helburu bat dute, "nola entrenatu ikasi behar dute, emaitzak ez dira garrantzitsuak".

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 17

Michelinen, 10:15ean

Texas Lasartearra-Urnieta
I. Kadetea

Lezama, 12:00etan

Athletic Club-Ostadar
Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga

Michelin, 14:15ean

Ostadar-Ordizia
Infantilen Ohorezko maila

Herrera, 15:30ean

Sporting de Herrera-Ostadar
I. Jubenila

Michelin, 15:45ean

Ostadar-Elgoibar
Emakumezkoen maila

Michelin, 17:30ean

Ostadar-Zarauz
Erregional Ohorezko maila

Mendibeltz, Orrio, 18:00etan

Orioko-Ostadar
Jubenilen Ohorezko maila

Igandea 18

Michelin, 10:00etan

Ostadar-Urola. Infantil Txikiak

Harane, Usurbil, 10:00etan

Usurbil-Ostadar I. Infantila

Michelin, 11:30ean

Texas Lasartearra-Ostadar
I. Erregionala

Harane, Usurbil, 11:30ean

Usurbil-Ostadar
I. Kadetea

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 16

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantxa

19:40ean, Izkiñ-Indaux

20:30ean, ISU Leioak-Albaiteria Vertical

21:20ean, Buenetxea-Izarra

Larunbata 17

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantxa

10:30ean, Oria kristaldegia-El Punto

11:30ean, Balerdi harategia-Txindoki taberna

12:30ean, Ana eta Soi ileapaindegia-Urdaneta H.K.

13:30ean, Trumoi-Ilargi

Resti frontoia, Zaldibi, 16:30ean

TellatuBerri Zaldibi-ISU Leioak
Gipuzkoako Liga, I. maila

Kiroldegia, 17:00etan

Aldaz H.K.-Gora Nazional III. maila

PILOTA

Ostirala 16

Ernio, Bidegoian, 19:30ean

Aurrera Saiaz I-Intza
Eskuz binaka, II. jubenila

Larunbata 17

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza-Arrasate

Eskuz binaka, II. seniorra, JAITSIERA

Igandea 18

Añorga, 09:30ean

Añoga 2-Intza
Eskuz binaka, II. kadetea



ATLETISMOA

Larunbata 17

Antonio Elorza belodromoa, Donostia,
10:30ean

Landaberri eta Sasoetako alebin eta

infantil mailako gaztekoek pistako eskolarteko lehiaketako proba libreak dituzte.

Ikaztegieta, 16:30ean

Herriko hainbat atleta Ikaztegieta XVI. herri krossean parte hartuko dute.

ERRUGBYA

Larunbata 17

Michelin, 12:00etan

Beltzak Ostadar Gure Etxea-
Gernika Kadeteak

Unbe, Eibar, 12:30ean

Beltzak Ostadar Jalai-Eibar
Eskolarteko infantilak

Igandea 18

Michelin, 09:00etan

Beltzak Ostadar Jalai Erregby eskolako alebin eta benjaminek entrenamendua dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 17

Atsokabar parkea, 11:00etan
Bazpi Txirrindularitza eskolako

kideak alebin eta infantil mailako (1.999-2.001 urteak) haurrekin saioa egingo dute.

Igandea 18

Antonio Elorza belodromoa, Donostia,
10:00etan

Bazpi Txirrindularitza eskolako gazteek Gipuzkoako pistako txapelketako bigarren jardunaldia dute.

JUDO

Larunbata 17

Bañeta kiroldegia, Amurrio, 10:30ean
LOKEko kadete eta infantil mailako judoek XIX. Amurrioko Hiria torneoan parte hartuko dute.

IGERIKETA


Larunbata 17

Santurtzi, 10:00etan

Buruntzaldea IKT-ko Itsaso Tolosa, Haitz Mitxelena eta Mikel Esnal igerilari gazteek Errendimenduko Euskal Zirkuituko lehenengo jardunaldia izango dute.

Agenda

Ostirala 16, 20:00etan, Manuel Lekuona Kultur-etxea



Oteiza eta bere poesia

Kukai dantza taldeak eta Tanttaka antzerki taldearen elkarlanari esker, "Oteitzari biraka" emanaldia ikusteko aukera izango da. Jorge Oteiza eta bere idatzizko lanak dira emanaldiaren oinarria. Dantza, musika, poesia, bideoa eta beste hainbat osagarri izango ditu Oteiza-ren omenezko ikuskizunak. Sarrerak leihatilan, 6 euro; internetez, 5 euro. .

antolatu du erdialdeko kaleetatik barrena.

Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Astelehena 19-Osteguna 22

Lasarte-Oriako Udalak antolatuta Osasun jardunaldiak. Eguneroko osasun arloko aditu batek eskainitako hitzaldi interesgarria entzun ahal izango da.

Diaporama

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Asteazkena 21, 21:30ean

Maite Salazarrek Perun bizitzako esperientzia kontatuko du. Taktun kultur elkarteak antolatzen duen Diaporama sortaren barruan.

Ipuin Kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Osteguna 22, 18:00etan

Pello Añorgak 4 eta 5 urteko haurrei ipuin bitxi eta dibertigarriak kontatuko dizkie.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 18, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, "¡Piratas!" filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz.



Osteguna 22, 21:30ean

Ostegun zinea atalaren barruan, "Melancolia" filma eskainiko da Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 4,40 euro; internetez, 4 euro. Gaztelaniaz.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 17, 16:00etan

"Ninika" haurrei zuzendutako dantza emanaldia eskainiko du EliralE taldeak. Dantza garaikidea eta euskal dantzak nahasten dituzte. Sarrerak leihatilan, 3,2 euro; internetez, 3 euro.

Musika

MENDI KAFE-ROCK

Larunbata 17, 20:00etan

Iker Piris-en blues eta funk doinuak entzuteko aukera. Kultur kale zikloaren barruko ekintza.



HERRIKO KALEETAN ZEHAR

Osteguna 22, 18:30ean

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolak Santa Zezilia eguna ospatzeko kalejira

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Azaroan zehar

Goizane Mendizabal oiartzuarraren argazki erakusketa berria ikusgai izango da.



Herritarren txokoa

Errioxara bidaia

Biyak Bat elkarteak eta honen lagunak azaroaren 29an Errioxara txangoa egingo dute. Goizean Haro, ardoaren hiriburua ezagutuko dute. Bazkaria Logroñon izango da eta ostean, hiria bisitatuko dute.

Iteeraren prezio elkarteko bazkideentzat 34 eurokoa izango da eta bazkideak ez direnek 38 euro ordaindu behar dituzte.

Izena eman edo informazio gehiago eskuratzeko interesa duten herritarrek Biyak Batko egoitzako bulegora, Kale Nagusia, gerturatu beharko dira.

Loteria eta barrikotea

Lasartearra elkarteak bere bazkide eta lagunei jakin arazten die, Gabonetako Loteria salgai duela. Txartelak eskuratu nahi dituzten herritarrek elkarteko bulegora, Erribera kalea 10 atzealdean, hurbildu behar dira astelehenetik ostirala 18:00etatik 19:00etara.

Era berean, abenduaren 1ean ohiko barrikotea antolatu duela jakitera ematen du. Izena emateko azken eguna azaroaren 26a da.

Euskararen 8. Maratoian aurkitutako gauzak

Euskararen 8. Maratoia amaitu eta garbiketa lanetan, honako gauza hauek aurkitu dira: jertse beltza, deuchland idatzia duen sudadera bat eta aterki gris bat.

Gauza hauen jabeak Ttakun elkartetik hurbil daitezke jasotzera.

Korrika egiteko talde amateurra

Lasarte-Oriako korrika egiteko talde amateurra sortu nahi da. Lehenengo urratsak!! Hitzordua, aterki dagoen astelehenetan 20:00etan Hipodromoko zubian. Barrazkilo eta bareak animatu!

Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oriako auzo elkarteak antolatu duen marrakzi eta margo ikastaroko klaseak eskaintzen dira Manuel Lekuonan.

Astezken eta ostiraletan 18:30ak eta 20:30ak bitartean Manuel Lekuonako 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Hemeroteka

Duela 1034 ale

TXINTXARRI aldizkarian, "Testu zaharren bilduma egin dut" titularraren Josu Pikabea institutuko irakasleari egindako elkarrizketa argitaratu zen. "Euskara guztiok" liburua prestatu zuen irakasleak eta gure aldizkariari liburua erakutsi ondoren nondik norakoak azaldu zizkien herritarrei.

Elkarrizketan azaltzen duenez, "Euskal hizkuntza eta literatura" eta euskalki literarioak eman behar izaten ditut. Orduan testu zaharrak irakurri behar dituzte ikasleek [...] Nire asmoa, aukera bat egitea zen, antologia edo testu bilduma bat" eta klasean erabili ahal zena.



Baina aipatzen duenez, "argitalerxe bati gustatu zitzaion ideia hori eta animatu egin zen. Orain, liburu bezala ateratu dute, ez ikasleentzat bakarrik, baita edozein irakurlerentzat ere".

Liburua erakutsi ondoren gutun batetik ateratakoa dela azaltzen du, "euskara guztiok dodaz maite eta gozo". Horrek esan nahi du euskara guztiak dituela maite eta gozatu. Izan ere, bere ustez hitz horiek libururaren muina erakusten dute, "euskara guztiak, euskalki literario guztiak hor daudelako".

Irakurleak animatzen zituen liburua irakurtzera, "zertxo bait ezagutu nahi baldin badu literatura klasikoa eta euskaraz idatzi dena, baina nazkatu gabe, bide bat liburu hau irakurtzea izango litzateke".

Rafa Lopezzen *road story* motza

Errepide-ipuina labur laburra argitaratu du "200 microrelatos. On The Road" liburuan

Rafa Lopez Lasarte-Oriako idazle eta musikariaren mikro istorio bat argitaratu dute "200 microrelatos ON THE ROAD" izenburua duen liburuan. 160 hitz baino gutxiago izan behar zituzten ipuin labur horiek, mila lan baino gehiago aurkeztu ziren eta Lasarte-Oriako idazlearen "Bi mundu eta bide bat" dago aukeratu dituzten 200 istorioen artean. Gazte-leraz idazten du nagusiki Rafa Lopez lasarteoriarak, eta aurretik ere bere ipuinak argitaratu dituzte zenbait bildumetan.

Jon ALTUNA IZA

ArtGerust on line argitaletxeak ateratu du "On The Road" liburua, errepideko literatur istorioak bultzatu eta bide batez Jack Kerouac idazlea omentzeko. Autore estatubatuarra 60. hamarkadako "Beat generation" mugimenduaren ikurretariko bat da.

Rafa Lopezek adierazi digunez, lehiaketaren gaiak berak bultzatu zuen parte hartzera. "Jack Kerouac-en bi liburu irakurri neuzkan, Allen Ginsberg eta Boris Vian-enak ere bai, lehiaketa interesgarria iruditu zitzaidan, oso erakargarria, probatzea erabaki nuen eta ondo ateratu da".

Rafa Lopezen ustez, "beharbada 60 urteak apur bat mitifikatu daude gaur egun, baina egia da kultur arloan aldaketa handiak izan zirela eta gaur arte iraun dutela. Argitaratu didaten "Dos mundos y un camino" mikroerrelatoak erakutsi nahi du ze txiki izan gaitezkeen gure road movie propioan".

Interneten begiratzeko du lehiaketa interesgarriko dagoen eta gaia egokia iruditzen zaiotzanean idazten du. Idatzi duen ipuinik luzeenak 20 orrialde ditu, "argitaratzeko errazagoak dira laburrak" dio Lopezek.

Hiru bildumetan argitaratu dituzte bere lanak, aurreko biak narrazio ateoak, Tenerifeko La Colmena argitaletxean, eta Toledoko Tierra de Fuego II. Literatur Sariketako liburuan.

Kasu honetan ere interesgarria iruditu zitzaion Rafa Lopez idazleari "Beat Belaulandia" eta errepideko istorioen gaia, lehiaketan parte hartzeko pausua eman eta pozik da emaitzarekin: "aukera bat da irakurleengana iristeko eta zuk idatzitakoa jendeak irakurri dezan. Polita da hori".

Liburua internet-en salgai

ArtGerust argitaletxeak, idazle berriei aukera emateko lehiaketak antolatuta ohi ditu. "On The Road" lehiaketan guztira 1.079 lan aurkeztu ziren. Argitaletxearen www.artgerust.com web orrialdean erosi daiteke "Autores varios" izeneko bildumaren barruan lehiaketan parte hartu zuten istorio onenekin argitaratu den liburua, 12,49 euroren truke. Creative Commons erara lizentzia horrekin argitaratu dute eta.

Lehiaketa Jack Kerouac (1922-1969) idazle estatubatuarren omenez antolatu dute. 60 hamarkadako "Beat Belaulandia"-ren ikurra eta zenbait mugimendu sozialen inspiratzailea izan zen. Horien artean aipagarriak dira esaterako Vietnameko gerraren aurkako erantzuna, hippiak, 68ko maiatza edo road movie zinematografikoa.

"On The Road" liburu-omenaldiaren izenburua Jack Kerouac-en eleberrinobela ezagunenetarikoa batetik ateratu da: "Bidean (On the Road)" Bere beste lan ezagun batzuek "Dharmaren eskaleak" edo "Bidaia bakartia" dira.



"200 microrelatos ON THE ROAD" liburua Rafa Lopezen altxoan den Iraia bere alabaren eskuetan.

Kerouac-en "Dharmaren eskaleak" nobelan, Rafa Lopezek adierazi digunez, barrurako bidaia, drogen ospindua, ilusioak eta askotariko pertsonaiak nahasten dira: "Egia esan entzuten eta irakurtzen ditudan gauza asko 60 eta 70 hamarkadakoak dira. Irakurri dudana azkenetariko liburua Boris Vian-en "Escupire sobre vuestra tumba" da. Autore hau 1959an hil bazen ere, "Beat Belaulandi" filosofiaren barruan sartze-

ko modukoa da" kontatu digu Rafa Lopezek.

Erantzun ona

"ArtGerust Creaciones" taldeko antolatzaileak pozik dira lehiaketak izan duen erantzunarengatik: "Asmoa bidaia-istorio, Jack Kerouac-en "On The Road" liburu eta Zinema Road Movie nahasketatik sortu zen. Izpiritu horrekin antolatu dugu, era honetako literatura bultzatu, eta bere-


ziki Jack Kerouac gogoratu". Beraz, errepideetan eta haue-tako joan etorrietan oinarritutako errelato laburrak eskatu zituzten eta erantzun oso ona izan dute.

Carlos Sala idazleak irabazi du lehiaketa "El viaje vital de un hombre y su herencia", lanarekin. Rafa Lopez herritarren mikro-istorioak "Dos mundos y un camino" izenburua du eta idazleak berak itzuli du TXINTXARRIN argitaratzeko.

Bi mundu eta bide bat

Hau da Rafa Lopezen "Bi mundu eta bide bat" ipuina: *Velvet-a erabat ozenki, piztia egarri, balaztatzeko eta edaten emateko ordua da. Armiarma bat berogailuko zirrikietatik irtetan da, bien bitartean eltxoen parrasta agoniatan Cadillaceko paratxoekin arka talka egina.*

Motorreko soina zarataz orruka, babes bila joateko ordua. Eguzki arrai, errepide bat eta bikotea. Bi mundu, mundu ber-berean, hiru mundu agian? zenbat edo? Gizaki bat ionizatzaileko zirrikietatik irtetan da, gala-xiarteke autopista dardara distantzia txikira.



TOLOSA TABERNA JATEKETA

Probatu gure karta eta eguneko menua

Doctor Begiristain Pasealekua 90
20014 Donostia
Tel.: 943 459397